

Udalekuak eta kanpaldiak gazteentzat

Gazteek hamaika aukera dituzte udan edonora mugitzeko, hainbat elkarteren, ikastolen eta Foru Aldundiaren eskaintzak direla medio



■ ■ ■ Hainbat gazte, otordu batean, udalekuan.

Ikasturtea amaitu eta gazte guztiak herriko lagun eta ingurukoekin hara eta hona ibiltzen dira. Egun batean hondartzara, bestean igerilekura, bestean mendira... Aisialdian eta batez ere oporretan ondo pasatzeko mila ekintza eta egun-pasa antolatzen dituzte. Asmo baka-

rra izaten dute guztiak, etxetik kanpo ibiltzea edo ahalik eta abentura zoragarrienetan murgiltzea behintzat.

Egia esan, oporretan ondo pasatzeko gauza gutxi behar bada ere, aukerak ez dira falta izaten sekula. Ikasturtea amaitzean dagoela hasten da hain-

bat elkartek, Foru Aldundiek eta ikastolek egiten dituzten eskaintzen bonbardaketa.

Helburu bakarraz egiten da guztia, hau da, nork bere oporrak ahal bezain ondo antola ditzan material eta eskaintzak eskura jartzea.

Antolatzaileek, urtetik urtera,

berrikuntza eta aldaketa berezi eta interesgarri betetzen dituzte eskaintza orriak. Urtero topatzen dugu leku berriren bat, urtero ikastaro edo aldaketa bereziren bat. Beti dago liluratzeko gaituen berrikuntzaren bat. Horrela, horrenbeste eskaintza eta berrikuntzek

poza ematen badute ere, gero eta zailago jartzen dute aukeraketa. A zer-nolako komerziak aukeraketa egiteko momentuan.

Bi hilabeteetan, uztailean eta abuztuan hain zuzen ere, hamaika txoko eta abentura bizitzera gonbidatzen gaituzte elkarre, ikastola eta abarrek.

Elkarre eta erakunde horien guztien eskaintzak zerrendatzen hasiko gara, baina nondik hasi?

Foru Aldundiak

Alde batetik horra hor Foru Aldundiek antolatzen dituzten gazteentzako udalekuak. Aldundiek Euskal Herri osoan udaleku eta kanpaldiak antolatzen dituzte: Besteak beste, Azkarate, Doneztebe, Oronotz, Lizarra, Abaltzisketa, Hondarribi, Azkona, Orio, Zarautz, Segura, Barria, Lapuebla de Labarka, Zuhatza, Orduña, Euba, Zornotza, La Arboleda eta Gorliz herrietako udalekuak ditugu.

Ikastolen Elkarreak

Ikastolen Elkarreak eskaintzen dituen udaleku eta kanpaldien barruan berezitasun bat aipatu behar dugu: ingelesa eta frantsesa ikasteko aukera ematen duten udalekuak dira.

Hamar urtetik hamasei urte bitarteko gazteentzat antolatutako egonaldi hauek ekain bukaeratik uztail bukaera artekoak izaten dira. Udalekuak bitxandatan banatuak daude eta Bermeon, Lekeition, Sopelan, Zarautzen eta zehazteke dagoen Iparraldeko herri batean egiten dira. Hizkuntzaren ikasketa ekintza eta jokoetan tartekatzen dute eta horrela ikasketa samurtu eta denbora-pasa atsegin bilakatzen dute.

Horrelako udalekuak Euskal Herrian antolatzeaz gain, hemendik kanpoko egonaldiak ere antolatzen dituzte; horra

LIZARRAGI PARKETXEA

Aralar parke Naturala

Beasain-Arbizu errepidean
Jatetxea eta Aterpetxea
40 plaza

JATETXEA 943 58 20 60 eta ATERPETXEA 943 58 20 66



Urte osoa zabalik



Zure oporrak
antolatzen
laguntzen dizugu

Lazarraga, 3
Tel.: 943 71 62 16 - Faxa: 943 7163 58
OÑATI-GIPUZKOA




Igerilekuak
Taberna-Jatetxea
Erreategia

Etxarri Aranatz, Aralar eta Urbasa mendikateen erdibidean.

- Taberna-Jatetxea.
- 70 pertsonentzako aterpetxea.
- Ur eta argia duten lursailen alokera.
- Ekintza ezberdinak: zaldiak, tiroa arkuz, BTT, ibilbide megalitikoa.
- Bungalow-en alokairua: asteburuko prezio bereziak irailtik ekainera.

ETXARRI-ARANATZ, 31820 (Nafarroa) - Tel.: 948 - 460 537



Deierri

INFORMAZIOA:

Tel.: 948 54 21 50
31177 Azkona (Nafarroa)

- Baraualdiak osasun gaiari buruzko hitzaldiak
- Yoga - erlajazioa, dantza, ibilaldi hiperairezatutak, masaje tailerra,...
- Masajista • Ibilaldiak • Mediku Naturista

MARÑO
GUZURTEGI

MARÑO
Tel.: 945 39 94 38